



**deba berri**

Debako udal aldizkaria - Revista municipal de Deba

# Euskal Kostaldeko Geoparkea

Debari onura garbiak ekarriko dizkio

© Argitaratzailea/Edición: Debako Udala  
 Egilea/Realización: Kaioa a.s.p.  
 Inprimatzailea/Impresión: Euskalinpri  
 Ale kopurua/Ejemplares: 3000  
 L.G./D.L.: SS-918-2012

Herritar hori:

Urtebete igaro da Udal-hauteskundeak izan genituenetik eta, beraz, Udalbatza berria osatu zenetik. Hasieratik Udalbatza honek bi helburu nagusi izan ditu:

Alde batetik, Udala gauzatzen ari den proiektua eta bultzatzen dituen egitasmo guztien berri herritar orok izatea da; bestetik, herritarrek aukera izatea beren kezkek eta iradokizunak udalari jakinarazteko.

Bi helburu horiekin dator esku artean duzun aldizkari hau, eta oraingo Udalbatza osatu eta urtebetetera badator ere, aurrerantzean saiatuko gara maiztasun handiagoarekin udaleko gorabeherak zuri helarazten.

Azken batean, Udala herritarren zerbitzura egon behar duen instituzio bat baino ez baita eta, horretarako, ezinbestekoa da eskura izatea herritarren eta Udalaren arteko informazio trukaketarako bitarteko eraginkorrak.

Beraz, zure ikuspuntua eta gogoetak Udalari helarazi nahi badizkiozu aldizkari honetan baduzu orrialde bat horretarako prestatua eta, bete ondoren, Udalean horiek jasotzeko egokitu den postontzira bota dezakezu. Bestalde, teknologia berriek gaur egun duten garrantzia kontutan izanda, Udalak duen web-orria urtea bukatu aurretik osatu eta hobetu egingo du, eta bertatik ere aukera izango duzu zure iritzia emateko.

Azken boladan, bizi dugun krisialdiari buruzko informazioa dugu eguneroko janari komunikabideetan eta, tamalez, esan beharra daukagu, krisi honek udalei ere ukitzen diela. Honela, krisi honen eraginez Udal honen diru sarrerek beharrekada nabarmena izan dute azken urteetan eta horrek, noski, gastuen murrizketa eta, zenbait proiektu aurrera eramateko zailtasuna eragin ditu. Hala ere, ez daukagu inolako zalantzarik, kudeaketa egokiarekin, gardentasunez eta herritar ororen iritzia kontutan izanda, denon artean gai izango garela herri honen eta herritarren beharrei erantzuteko.

Horrenbestez, agur.



Kaixo herritarrak:

Ha transcurrido un año desde que se celebraron las elecciones municipales. Desde que se constituyó la nueva corporación, ésta ha tenido muy claros dos objetivos: por una parte, que la ciudadanía tenga conocimiento de los proyectos e iniciativas que se están impulsando desde este Ayuntamiento; y por otra, que todas las personas tengan posibilidades reales de hacer llegar a esta corporación sus quejas, reflexiones y recomendaciones.

Es precisamente con esa finalidad el porqué de la edición de esta revista. Y a pesar de que este primer número sale al cabo de un año de la constitución de la nueva corporación, en lo sucesivo se procurará hacerlo con una mayor frecuencia.

Desde estas páginas queremos hacer saber que quien desee hacer llegar a este Ayuntamiento sus quejas, reflexiones y sugerencias, en esta publicación dispone de un espacio destinado para ello. Una vez rellena y recortada esa página, podrá depositarla en el buzón que con ese fin se va a instalar en el Ayuntamiento.

Por otra parte, siendo conscientes de la relevancia que hoy en día han adquirido las nuevas tecnologías, antes de fin de año nos comprometemos a completar y mejorar la página web que dispone este Ayuntamiento, para que a través de la misma, todo el mundo pueda tener una vía de comunicación con el Consistorio.

Últimamente, las informaciones sobre la crisis que nos azota se han convertido en la noticia central de todos los medios de comunicación. Por desgracia, tenemos que decir que esta crisis también afecta a los Ayuntamientos. Así, y debido a la incidencia de la crisis, la capacidad económica de este Ayuntamiento ha descendido de manera notable y esto, como no podía ser de otra manera, conlleva una restricción en cuanto a los gastos y la dificultad para la realización de determinados proyectos.

Pero no tenemos ninguna duda de que con una gestión eficaz, actuando con transparencia y teniendo en cuenta la opinión y las recomendaciones de tod@s vosotr@s, seremos capaces de responder a las necesidades de este pueblo.

Besterik gabe.

# Uda dator

## Llega el verano

Uda dator eta denok dakigu gure herrian turismoak duen garrantzia. Kaleak jendez beteko zaizkigu eta gure herriak beste izaera bat hartuko du, herriko jendearekin batera kanpotar ugari izango baititugu gure artean.

Turismoa erakartzeko badakigu, gaur egun, hondartza izateak duen aparteko garrantzia; baina Debak baditu beste hainbat eskaintza ere erakargarri egiten dutenak: naturaz gozatzeko eskaintza zabala, inguruan dituen hainbat gune kultural interesgarri bisitatzeko aukera, herrian udan egiten diren ekimen kultural erakargarriak, hondartzeko kirola, erromesen atsedenerako gunea...

Beraz, honi guztiari aurre egiteko Udalak zerbitzu batzuk indartu egingo ditu eta beste berri batzuk martxan jarriko ditu:

- Turismo bulegoa (ekainaren 15etik irailaren 15era ordutegia luzatu egingo da, goizeko ordutegiaz gain, arratsaldeetan ere irekiko da eta. Astelehenetik larunbatera goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 20:00etara, igandetan, berriz, goizez bakarrik zabalduko da).

- Hondartzako aldagelak eta toloak (ekainaren 15etik aurrera, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte).

- Hondartzako zerbitzuak: dutxak, oinak garbitzekoak, pasaguneak, megafonia, seinaleztapenak...

- Sorosleak (ekainaren 15etik irailaren 15era, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte).

- OTA (Nafarroa plazan maiatza osoan eta ekaineko lehenengo 15 egunak,

asteburu eta jai egunetan 09:00etatik 20:00etara; ekaina, uztaila eta abuztuan egunero ordutegi berean).

- Surf, bodyboard eta piragua ikastaroak ume eta gazteentzat.

- Hondartzako pasealekuan ere laster Deba-Zumaia itsaslabarreko Biotopo babestuari buruzko bi panel ikusteko aukera izango dugu, gure herriko gune naturalaren informazioa helarazteko.

- Udan zehar, jaiak ere tartean ditugu, eta debarran egunarekin hasitakoak, San Juan suaren festarekin murgilduko gara udan, San Roke jaiekin bete betean gozatuz abuztuaren 14tik 19ra, eta irailean euskal jaiarekin azken txanpa eginez.

Naturaren zikloarekin batera, berriro loreak erortzen hasiko dira, udatiarrak beraien tokietara bueltatuko dira, umeak eta gazteak ikastera, beste batzuk lanera, eta udazken atarian, datorren urteko udaren zain. Goza dezagun ba!!

“ La llegada del verano, de especial relevancia para el municipio, supone la puesta en marcha de nuevos servicios y el refuerzo de otros. De este modo, se activa el parking de la playa como zona OTA, se amplía el horario de la oficina de turismo, comienza la temporada de playa con los servicios de vestuarios, duchas, toldos o socorristas, a la vez que se ofrecen cursos y actividades como surf, bodyboard o piragüismo. Y además, llegan fiestas como San Juan, San Roke o la que cierra el verano: Euskal Jaia. ”



# Debako Udalekuak

Urtero bezala, IKIMILIKILIKLIK udaleku irekiak antolatu ditu Udaleko Euskara Batzordeak. Uztaileko lehenengo hamabostaldian aurten 6 eta 7 urte egingo dituzten neska-mutilek hartuko dute parte eta, bigarrengoan, 8, 9 eta 10 beteko dituztenak. 70-100 haur inguru izaten ditugu hamabostaldi bakoitzean.

Herriko neska-mutilek euskaraz gozatzea da udalekuon helburua, lagunartean eta atseginez. Iaz, 5. eta 6 mailakoei

ere beste eskaintza bat zabaldu zitzaion, “BAGA BIGA” arratsalde pasak.

Aurten, kontratazioetarako diru laguntzarik izango dugun ala ez oraindik jakin gabe, ez dakigu eskaintza horrekin jarraitu ahal izango dugun. Modu batera edo bestera antolatuta baina udako eskaintzaren bat egin, egin nahiko genuke ordea, adin tarte hau euskararentzat lehentasunezkoa dela iruditzen zaigu eta.



# Gure herriko jai ereduaren inguruan



Bizpahiru hilabete barru bertan izango ditugu Debako Jaiak, hau kontuan izanik hauen inguruko hainbat gogoeta plazaratzea garrantzitsua deritzogu. Besteak beste, azken asteotan jaien inguruan sortu den iritzi zurrunbiloari erantzuteko asmoz eta debar herritarrak gai honekin ere inplika daitezten.

Debako Jaiak, historikoki, jai itzelak izan dira eta inguruko zein urrunagoko jendea erakarri izan dute; jendearengan ezagunak izateaz gain parte hartzaileagoak eta herrikoiaogoak ere izan ziren garai batean. Hala ere, azken urteotan jaien “krisi” bat bizitzen ari garela esan genezake; egoera hori ez dagokio Debari bakarrik, Euskal Herrian oro har jazo den errealtatea da hain zuzen ere. Egoera honen adierazle nagusiak, batez ere, giroan zein jende kopuruan nabaritu ditugu gure kasuan.

Egungo jai ereduaren krisiaren arrazoen artean honakoak aipa genitzake: alde batetik, gizarte ereduaren aldaketa orokorra eta bestetik, jaien azken urteotako bilakaera. Lehendabiziko arrazoiari dagokionean, debar askorentzat jaiak “betiko berdina” dira eta luzeegiak gertatzen direnez, nahiago dute kanpora joan; ikus dezakegun moduan jendearen mentalitatea aldatu da jai eredu bere horretan mantendu den bitartean. Jaien bilakaerari so eginez gero, ikus genezake parte hartze maila handia zuen jai eredu batetik, gero eta parte hartze maila txikiago zuen eredu batera egin duela salto, honen arrazoi eta baita ondorio nagusia herritarren interes falta izan delarik.

Deban modu berezian bizi izan dugu “krisi” horren eragina. Izan ere, ohitura kontuetan nahiko “tradizionalista” garenez, asko kostatu zaigu gure jai eredu zaharkiturik zegoela barneratzea. Horrexegatik izan ditugu horren beste eztabaida jai egun kopuruaren inguruan, egitaraua iraultzearen inguruan eta abar luze bat.

Guzti hau kontuan izanik, argi dagoena da egungo jai eredu goitik behera eztabaidatu beharra dagoela, herritarren parte hartze murriz hori guztiz aldatu ahal izateko. Eztabaida honen izaera zabala, parte hartzailea eta zintzoa behar du izan, horrexegatik hau ez da alderdi politikoen lana, herri mugimenduarena eta debar sentitzen garen ororena baizik; gure ardura da. Mahai gainean dauden gai garrantzitsuen artean, parekidetasunarena, euskal kulturaren eta euskararen presentziarena eta parte hartzea sustatzearena ditugu; hala ere, badira zezenketak eta jai-egun kopurua bezalako gai zehatzak zeinak lehenago edo beranduago ere eztabaidatuak izan beharko diren.

Gure jaiak antolatu eta garatzeko ardura debar denona den heinean, debar guztiak hauen baitan dauden esparruetan lan egitera gonbidatzen ditugu inongo zalantzarik gabe. Ekin diezaiogun ba jaiari!

“ Durante los últimos años estamos viviendo una “crisis” generalizada en las fiestas patronales de Euskal Herria, y en consecuencia, en nuestros “San Rokes”, tanto a nivel de participación como de ambiente creado en las mismas.

El cambio de modelo social (ante tantos días de fiesta mucha gente se va fuera) y la evolución de las propias fiestas (con una clara y progresiva menor participación y falta de interés), pueden ser dos de los motivos que expliquen la actual coyuntura festiva debarra.

Todos estos razonamientos nos tienen que hacer plantearnos el actual modelo festivo. Esto no es labor de los partidos políticos, sino de los colectivos locales y de todos aquellos que nos sentimos debarra. Es nuestra responsabilidad.


# Debako Kondairak

Azken urteetan herriko kondairak, ohiturak, tradizioa... biltzeko ahalegina egiten ari da Debako Udala; gauden tokira nondik eta nola heldu garen ulertzea, gure aurrekoen sinismenak, imaginarioa... ezagutzeko garrantzitsua dela iruditzen zaigulako, aurrera egiteko. Horrela, “Irulearen begiratokia”, “Alostorrea” eta “Hiru olatuak” izeneko kondairak argitaratu izan ditugu lehenago.

Joan den urtean, herriko nagusien ahotsak biltzen ahalegindu ginen, beraien bizimodua ezagutzeko ([www.ahotsak.com/deba](http://www.ahotsak.com/deba) helbidean topa daitezke transkripzioak); udako solstizioa ospatzeko egiten den San Juan suaren ingurukoak lantzen ere saiatu ginen, kontaktak eginez, informazioa banatuz... Eta azkenik, kostaldeko herri gehienen historia, balearen arrantzarena, kontatzen duen ipuina argitaratu genuen: Patxi Zubizarretak guretzat propio idatzitako “Hiru egun balearen sabelean”.

Aurten, Juan Venancio Arakistainek jasotako beste kondairetako bat argitaratu dugu: “Urkamendiko kondaira”. Bikote baten maitasun istorio tristea kontatzen du: mutilak destino petrala izango du, neskarekin ezkondu ahal izateko aberastasun bila, Itziarko Amaren altxorra lapurtzeko tentazioa izango baitu. Itziarren aurrera egin ezinik geratuko da eta bere atzetik datozenak harrapatu baino lehen, bere buruaz beste egingo du Urkamendin.

Kondaira herriari ezagutarazteko antzezpena prestatu dute Luzaro ikastetxeo 5. mailakoek, bi ekitaldi eskainiz horretarako (Itziarren eta Deban). Liburua Arkatza edo Masillo liburudendetan eskuratu ahal da.



“ Durante los últimos años, el Ayuntamiento de Deba viene realizando un esfuerzo por recopilar y sacar a la luz una serie de leyendas, tradiciones y costumbres locales.

Tras la publicación de tres leyendas populares (La Hilandera de Deba, Alostorrea y Las Tres Olas), el pasado año 2011 se trabajó en la recopilación de testimonios de diez personas mayores sobre los modos de vida, tradiciones y diversos asuntos relacionados con el pasado y la vida local.

También ese año, se trabajó sobre el Solsticio de Verano y su relación con el tradicional fuego de San Juan. Asimismo, se editó un cuento titulado “Hiru egun balearen sabelean” escrito por Patxi Zubizarreta, sobre la pesca de la ballena.

Este año se ha publicado una nueva leyenda, “Urkamendiko Kondaira”, leyenda popular transcrita por primera vez en 1866 por Juan Venancio Araquistain.

Versionada esta vez en un lenguaje más actual, e ilustrada con bellas imágenes, se ha preparado una dramatización de la obra por parte de los alumnos de 5º curso del centro Luzaro. La publicación estará a la venta en las librerías Arkatza y Masillo.”

# Zaborra 0

Gipuzkoan arazo larri bat dugu zaborrarekin. Urtean 350.000 tona hondakin sortzen ditugu eta etxeko hondakinen %75 nahasita, zabor bihurtuta, jasotzen ditugu. Urteak daramatzagu edukiontzien sistemarekin birziklatzeko asmotan, baina urratsak eman baditugu ere, sistema ahitua da. Gaur egungo gure birziklatze maila ez da %25era iristen, %90 birziklagarria denean. Denok birziklatzen dugula esaten dugu baina datuak gordinak dira, hondakinen %75 baino gehiago zabortegetara botatzen ari gara. Ez dugu organiko gramo bakar bat ere biltzen modu berezitan. Eta errealitatea are gordinagoa da: gaur egun papera, beira, ontziak eta organikoa nahastuta botatzen ari gara, balio handia duten eta lehengai diren hondakinak zabor kutsatzaile bihurtzen ari gara eta hori onartezina da.

Munduan zehar begiratzen badugu, gauzak aldatzen ari direla ikus dezakegu. Hondakinak natura ustiatuz eskuratutako materialez osatuta daude. Material horiek nahastu, zabor bihurtu eta suntsitu beharrean, direna bezala ikusten hasteko garaia da, baliabide bezala. Hondakin atalak nahastu ez baditugu, berreskuratu, berriz ere ekonomian txertatu eta produktu berriak egiteko balio dute. Hondakinen prebentzio eta birziklaian neurri eraginkor eta errealak ezartzen dituen ereduari Zero Zabor eredia deritzo.

Udalon helburu nagusietako bat herritarren ongizatea zaintzea da, eta Debako udalak, zerbitzu publikoa den aldetik, herritarren bizi kalitatea zaindu nahi du, zalantzarik gabe. Urteak daramatzagu gure hiri hondakinak bildu eta zabortegetira jaurtitzen, eta ondorioz gure hondakinek eragiten dituzten kalteak gure bizilagunek pairatzen dituzte. Eta hori ez da zuzena. Ez da zuzena ere, birziklatzeko saioa guztiak baztertu eta gure hondakinak erraustera bidaltzeko asmoa, arazo bati arazo handiago batekin erantzutea arrisurtsua izateaz gain antzua baita.

Gauzak honela gure hondakinen kudeaketa eredia aldatu eta guztion partehartze eta ardura eskatuko duen eredu baterantz pausoak ematen hasteko aukera egin nahi dugu. Munduan, Europan eta Gipuzkoan badira herritarren partehartzeari esker, atez-ateko bilketa sistemarekin, birziklatze maila eraginkorrak lortzen dituzten herriak, %80tik gora-

koak. Deba ere natur baliabideen erabilpen arduratsuan eredu izatea nahi dugu, birziklapenean eredu, eta honegatik **Zero Zabor** politikak aplikatzen hasi nahi dugu gure udalerrian.

Guzti hau modu eraginkorrean aurrera eramateko ordea herritarren kolaborazioa ezinbestekoa izango da. Denon artean, auzoz-auzo, kalez-kale eta etxez-etxe, birziklapen maila egokiak lortzeko baliabideak non kokatu, hondakinen bilketa noiz eta nola egin, inbertsioak adostu eta ditugun proposamenak bideratzeko aukera izango dugu. Honetarako, irailtik aurrera herriko hondakinen kudeaketa sistema zehaztuko duen partehartze prozesua abiatuko dugu, beti ere %80tik gorako birziklatze maila iristea ahalbidetuko gaituena.

“ Hoy en día tiramos mezclados el papel, el vidrio, los envases y la materia orgánica, convirtiendo una materia prima de gran valor en residuos contaminantes, y eso es algo inaceptable.

Queremos comenzar a dar pasos por el cambio en la gestión de nuestros residuos, para llegar (como ocurre en el mundo, en Europa y en diferentes municipios de Gipuzkoa) a niveles de reciclaje superiores al 80% con el **sistema puerta a puerta.** ”



# Euskal kostaldeko Geoparkea



*“Gure historia eta Lurrarena oso hertsiki lotuta daude. Haren jatorriak gure jatorria dira. Haren historia gure historia da eta haren Etorkizuna gure Etorkizuna izango da. [...] Zuhaitz zahar batek izan duen hazkuntzaren eta bizitzaren memoria bere enborrean gordetzen du. Lurrak ere bere iraganeko memoria gordetzen du... sakontasuenan eta lurrazalaren gainean, arroketan, fosiletan eta paisaietan idatzitako memoria, irakurri eta azal daitekeen memoria”.*

*Lurraren Memoriari buruzko Nazioarteko Aitorpena*

“ Desde el año 2010, los municipios de Deba, Mutriku y Zumaia conforman el denominado Geoparque de la Costa Vasca. Este geoparque forma parte de la Red Europea y Mundial de Geoparques, auspiciada por la Unesco.

Sin ningún género de dudas, el Geoparque es para la gran mayoría de la ciudadanía una apuesta muy importante.

Se trata de un gran activo para la comarca, que a medio plazo traerá importantes beneficios a los tres municipios enclavados dentro de sus límites. ”

2010az geroztik, Deba, Mutriku eta Zumaia osatzen duten eremuak Euskal Kostaldea sortu zuten. Eremu honek dituen natur eta kultur balio aparte esker lurraldea UNESCOk babesten duen Europako eta Munduko Geoparkeen Sarean dago.

Geoparkea bere ondare geologikoarengatik nabarmentzen den lurraldea da. Ondare geologiko honetan eta beste hainbat ondare elementutan oinarrituta (naturalak, kulturalak...), lurraldeak tokiko garapen jasangarria sustatzeko estrategia bat martxan jarri zuen.

Geoparkeen ideia nagusia ondare geologikoaren eta naturalaren iraunkortasunari balioa emanez, tokiko garapena sustatzea da. Geoparkeak lekuaren eta leku horretako ondarearen eta biztalen arteko zubi izan nahi du, pertsonak bere ingurumena-ekin lotzeko elementua.

Dudarik gabe, Euskal Kostaldeko Geoparkea Europar Geoparkeen Sarean sartzea apustu garrantzitsua da

gure herriarentzat. Izan ere, Geoparkeek eragin aktiboa izaten dute tokiko garapenean, bertako biztanleen bizitza-baldintzetan eta bertako ingurumenean. Hauxe da, hain zuzen ere, Geoparkeen helburua eta epe erdirako apustua bada ere, Euskal Kostaldeko Geoparkeak Debari onura garbiak ekarriko dizkio.

Aurrera begira, ekonomiaren garapenean elementu esanguratsua izan daiteke Geoparkea, proiektu berriak dinamizatuz, lan aukera berriak sortuz, martxan dauden enpresak sustatuz... Honek guztiak, etorkizunera begira bertako biztanleen bizi-kalitatean eragingo du.

Turismoaren alorrera mugatuz, apustu estrategikoa da Geoparkearena. Dudarik gabe, beste jomuga batzuetatik desberdintzen laguntzen digu, turismo iraunkor eta arduratsua sustatuz. Natur turismoa eta geoturismoa bultzatzen dira, baina ez da turismo arlorra eta kostaldera mugatzen den proiektu bat.





Geoparkeak, landa eremuan ere bertoko nekazaritza eta abeltzantza sustatzen lagunduko du, ekoizten diren produktuak balioan jarriz, ingurua ezagutzuz, eta orohar, landa inguruko balioak eta kultura suspertuz.

Guztia bultzatzeko nahiarekin, geoparkeak bisita gidatuak eskaintzen ditu. Kostaldeko itsaslabar ikusgarriek altxor natural berezi bat gordetzen du eta Geoparkeak deskubrimenduko bidaia hau egiteko hamaika aukera eskaintzen ditu. Martxotik azarora astebururo, uztaila eta abuztuan ia egunero egin daitezke bisita gidatuak. Itsas irteerak, irteera geologikoak, trekking-a, belaontzian irteerak, arrantza irteerak... bada non aukeratu.

Flyscharen mundutik oso gertu, mundu berri bat deskubritzeko aukera ere eskaintzen du Geoparkeak, Karstaren Ibilbidean barrena, kareharriaren higadurak sortutako paisaien mosaikoa dago, antzinako garaietan itsaso tropikal batean azpian sortua.

Aurten bisitetan berrikuntza modura, honako proposamenak luzatzen dizkigu Geoparkeak: haurrei zuzendutako

bisita bereziak, Karstaren mundua zaldiz ezagutzeko parada, zetazeoak ikusteko irteera, espeleologia irteera Deban Aixako Sekretuak ezagutzeko, Karsta zaldiz ezagutzeko aukera, Historiaurreko erreken Ibilbidea, Karstaren Mikrokosmosa Mutrikuko Olatz Bailaran...

Geoparkeak tokiko kulturarekin, ohiturekin, aintzako ogibideekin edota 3 herrietako ondare arkitektonikoarekin konektatzeko aukerak ere ematen ditu. Eta aurten, besteak beste, Lasturko Artzain Txikien Esperientzia, Zumaia eta Itsasoa lotzen dituen bisita kultural berria, Mutrikun Arrantza irteerak egiteko aukera edota Santa Maria Eliza bikainaz gozatu ondoren kontzertu berezi batez disfrutatzeke aukera izango da.

Geoparkeen filosofian edo lan-egiteko moduan herritarren parte-hartzeak garrantzi berezia du, honenbestez, ekimena modu egokian garatzeko tokiko partaidetza bultzatzea eta biztanleen lankidetzeta eta sentsibilizazioa lortzea oso garrantzitsua da. Hauxe da, beste batzuen arten, hurrengo bi urteetan Geoparkeak duen erronka nagusietako bat.

“ La riqueza del Geoparque no sólo está relacionada con el flysch y la rica naturaleza costera. También está unida a la cultura, costumbres, tradiciones y patrimonio arquitectónico de esta zona.

En la filosofía del Geoparque tiene una especial importancia la participación ciudadana. Por ello, es vital la sensibilización de quienes habitamos en los municipios costeros de este Geoparque de la Costa Vasca. Y es éste, entre otros, el principal reto que tiene el Geoparque en los próximos dos años. ”

# 3 actuaciones prioritarias desde los servicios sociales municipales



La complicada situación económica en la que estamos, nos ha llevado a tomar medidas desde el área de la Política Social de nuestro Ayuntamiento, como las que a continuación y de forma resumida damos a conocer.

## 1.- REPARTO DE ALIMENTOS

El Ayuntamiento (Departamento de Servicios Sociales), junto a Cáritas, Cruz Roja y el Banco de Alimentos de Gipuzkoa, han establecido un acuerdo para hacer llegar alimentos a aquellas familias en mayor dificultad. Hablamos de personas receptoras de prestaciones sin red de apoyo socio-familiar. Han llegado a ser 34 familias, 81 personas, l@s beneficiarios de esta iniciativa.

## 2.- CONTRATACIÓN DE EMPRESAS DE INSERCIÓN Y/O ESPECIALES DE EMPLEO

Apostamos por la inserción laboral de las personas con dificultades, aquellas con discapacidad, mujeres con cargas familiares, etc. para que a través de las competencias y concesiones municipales tengan una oportunidad en el mundo laboral. Se intenta combinar formación con trabajo para favorecer su incorporación.

La jardinería, la cafetería y la limpieza del centro de tercera edad son ejemplos de esta política de dar oportunidades a l@s que más difícil lo tienen.

## 3.- AES

A pesar de las trabas legislativas y de las restricciones de una norma que nos viene dada, seguimos ayudando económicamente a aquell@s con menos recursos económicos a través de las ayudas de Emergencia Social para hacer frente a gastos imprescindibles en el día a día.

## LEHENTASUNEZKO 3 EKINBIDE UDAL GIZARTE ZERBITZUETATIK

Egoera ekonomiko zaila dela-eta, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan honako neurriak hartu behar izan ditugu, jarraian, labur-labur, azalduko ditugunak:

### 1.- JANARI BANAKETA

Udalak (Gizarte Zerbitzuetako Saila), Caritas, Gurutze Gorria eta Gipuzkoako janari bankuarekin batera, akordio bat finkatu du zailtasun handienak dituzten familiei janariak helarazteko. Laguntza-sare sozio familiarrik gabeko pertsonak dira prestazio hau jasotzen dutenak. Ekimen honen onuradunak 34 familia izatera iritsi dira, 81 pertsona.

### 2.- GIZARTERATZE ENPRESEN ETA/EDO LAN ENPLEGURAKO ENPRESA BEREZIEN KONTRATAZIOA

Zailtasunak dituzten pertsonak lanean txertatzeko apustua egin dugu: udal eskumen eta emakiden bitartez, desgaitasunak dituzten pertsonak, karga familiarrik dituzten emakumeek, e.a., lan munduan aukera bat eduki dezaten. Formazioa eta lana uztartzen saiatzen gara, haien laneratzeari errazteko. Lorezaintza, kafetegia eta hirugarren adineko zentroaren garbiketa dira zailago dutenei aukerak emateko politika horren adibideak.

### 3.- GLL

Laguntza horiek bideratzeko dagoen arauak lege aldetik trabak eta murrizketak izan dituen arren, baliabide ekonomiko gutxiago duten haiei (egunerokoan ezinbesteko gastuei aurre egiterik ez dutenei) ekonomikoki laguntzen jarraitzen dugu, gizarte larrialdietarako laguntzen bitartez.

# SEXU-HEZKIDETZA ETA GENERO INDARKERIA prebentzio programa

## Educación sexual y prevención de la violencia de género

Udaletxeak, Berdintasun Sailaren bitartez, Sexu Heziketa eta Emakumeen kontrako Indarkeriaren Prebentziorako programa aurkeztu zion Luzaro Eskolari.

Proiektu honek, estrategia aktiboen erabilerari ematen dio lehentasuna, orokorrean, baliagarriagoak direlako. Jokoak, dramatizazioa, tailerrak eta komunikazio baliabi-deak,... erabiliz.

Programaren **helburu orokorrak**, hauek izan dira:

- Pertsonan sexu osasunaren hazkundera.
- Sexu harremanen kontrola eta planifikazioa handitzea.
- Planifikatu gabeko haurdunaldiak eta hauen ondorio negatiboen prebentzioa.
- Sexu Bidezko Gaixotasunak gutxitzea.
- Osasun zerbitzuetara sarrera erraztea.
- Beraien arteko harremanak hobetzea eta sexualitate gaiaren inguruan **berdintasuna sustatzea**.

Programa hau, 6. mailako ikasleei zuzenduta egon zen eta 2 orduko 5 saio izan zuten ikasleek.

Maiatzaren 2an berriz, gurasoentzat eta irakasleentzat ordu t'erdiko bi saio egin zituzten.



El Ayuntamiento, por mediación del Departamento de Igualdad, ofreció al Colegio Luzaro un programa sobre Educación Sexual y Prevención de la Violencia de Género.

Este proyecto da prioridad a la participación activa porque es más efectiva, utilizando juegos, dramatización, talleres y material de comunicación.

Los **objetivos** de dicho programa son:

- Educación sexual saludable.
- Aumentar el control y la planificación de las relaciones sexuales.
- Prevención de los embarazos no deseados.
- Disminución de las enfermedades contagiosas a través de la relación sexual.
- Facilitar la entrada en los Centros Médicos.
- Mejorar la relación entre ellos/as y, promover en el tema de la sexualidad, la **igualdad entre las personas**.

Este programa está orientado para los/as alumnos/as de 6º y se realizó durante 5 sesiones de 2 horas cada una.

Además, el 2 de Mayo hubo dos sesiones de 1h 30' cada una dedicada a los/as profesores/as y padres/madres.



# Itziar eta auzoak

Aurreko bi legegintzalditan Itziar eta Landa-eremua bi batzorde ezberdinetan bazeuden ere, legegintzaldi honetan batzorde bakar batean batzeko erabakia hartu zen, hainbat arlo komunean dituztelako.

Itziar eta landa-eremuan aurrera eraman edo bultzatu ditugun egitasmo nagusiak:

- **Aspaldidanik eskualdean dugun gaia da Tokiko Erakunde Txikia** (Auzo-udala) eratzearena. Bideragarritasun txosten bat falta zen aurrera jarraitzeko, eta txosten hori egiteko ardurua SIADEKOri ematea adostu genuen, jadanik bukatzeaz dago.

- **Lasturko plazan** ukuilua berritzeko proiektua aurrera doa, baina oraindik ez ditugu baimen guztiak eskuratu, errepidea ikutzen duenez Foru Aldundiak ere zeresana baitauka.

- **Endoian**, lehen eskola zen eraikinean, Kultur-etxea egiteko proiektua bultzatzen ari gara Zestoako eta Debako udalen artean; horretarako, udal bakoitzak 9.000euroko ekarpena egingo du.

- Azaroko euriteen ondorioz hainbat bide hondatu ziren, **Larraskandakoa** eta **Arriolako** konpondu ditugu arriskuan zeudelako, eta besteak ere poliki-poliki beharren arabera konponduko ditugu.

- **Itziarren 2-12 urteko eskola berria** eraikitzeke izapideak egin ditugu Hezkuntzan Bilera izan genuen eta Udalaren ize-nean eskaera hori luzatu zitzaizen eta horretarako lur-soroa eskaini ere bai. Esan ziguten, eskola-mapa momentuan geldirik zegoela, eta berria egiten zenean, ea Itziar hor sartzea lortzen zen, horrek bidea emango lukeelako eskola berria eraikitzeke. Dena dela, era berean aitortu ziguten, oraingoz, onartuta zeuden proiektu batzuk ere atzeratu egin behar izan dituztela dirurik ez dagoelako.

- **Apaiz-etxean** eskolak eman ahal izateko Gotzaitegian bikario nagusiarekin bilera izan genuen, beraiekin daukagun hitzarmena 2112/2013 ikasturtean bukatzen da, eta hitzarmen berri bat adosteko lehen pausoak eman ditugu, ez dugu uste, momentuan behintzat, Apaiz-etxea erabiltzen jarraitzeko arazorik egongo denik.



“ Entre los proyectos impulsados desde el Ayuntamiento referentes a Itziar y los barrios caben destacar los siguientes:

- Realización de un estudio por parte de SIADEKO referente a la constitución de Itziar como **Entidad Local Menor**.

- Proyecto de rehabilitación de la **plaza de Lastur**.

- Proyecto de construcción de un local cultural en el edificio que ocupaba la antigua escuela de **Endoia**.

- Reparación de caminos en **Larraskanda** y **Arriola**, deteriorados tras las lluvias torrenciales del pasado noviembre.

- Proyecto de realización de la **nueva escuela de Itziar** para alumnos de entre 2 y 12 años.

- Negociaciones con el Obispado para continuar utilizando la **casa cural** como escuela tras la finalización del curso 2012-2013. ”

# Elkarteen lokalak

Herri baten bizi-kalitatea, neurri handi batean, neurtu daiteke herriko elkarte ezberdinek (sozial, kultural, kirol...) herrira zein kanpora begira markatzen dituzten dinamiken bidez.

Debak, alde horretatik, aberastasun handia duela ez dago inolako zalantzarik, elkarte askoren lanari esker, alde batetik, herri dinamikoa daukagu eta, bestetik, jendeari eskaintza zabala ematen zaio gustuko dituen ekimenetan parte hartzeko.

Elkarte hauek guztiak beraien lana aurrera eramateko ezinbestekoa dute lokalak izatea, eta horretarako, Udalak Osion, orain arte Musika Eskola egon den eraikinean, lokalak egokitu ditu eta elkarte guztiekin hitzarmenak sinatu ditu euren lokalak izan ditzaten.

Denon nahia konponbide egokia aurkitzea denez, ziur gaude lortuko dugula.

## Aldats frontoia

2010eko maiatzaren 14an inauguratu zen Aldats frontoia Deban. Frontoia helburu nagusiak kirola (bereziki pilota, modalitate guztietan) sustatzea eta herriko kultur, jai eta beste elkarteek dituzten beharrak ahal den heinean betetzea ziren eta dira.

Horrela, bi urte pasa ondoren, bertan dira lekuko pilota eskola, pilota elkarteko saio eta partidak, umeentzat jolas lekua eta herriko beste ekintzak: antzerki astea, jaialdiak, erakustaldiak, bazkari herrikoiak, bertso emanaldiak... eta abar.

Frontoia eta aurreko etxearen kokagunea dela eta, elkarren ondoan, frontoian sortzen diren zaratak (eguneroko paleta eta pala motzeko zaratak, sarritan jaialdietako soinuak,...) auzokoek jasaten dituzte eta haiek udalari zuzendutako kexak arrazoizkoak dira.

Egoera horri aurre egin nahian Udalak auzokoekin bilera bat edo beste egin du eta bertan, guztion borondatearekin, molestia horiek gutxitzeko aukerak jorratu dira.

Zarataren kontua, behingoz, ahal den neurrian ezabatzeko ze interbentzio egin behar den jakiteko, ingeniari akustiko bati ikerketa enkargatu dio Udalak.

Txosten hori heltzear dago eta, heltzen denean, auzokoei ezagutaraziko zaie hartu beharreko neurrien gainean adostasunetara iristeko asmoz.

Azkenik, frontoia erabili nahi dutenek honako helbidera zuzendu behar dituzte eskaerak: 943 192 262 edo [deba@bpxport.es](mailto:deba@bpxport.es)



“ Desde la inauguración del frontón en mayo de 2010, se están cumpliendo los objetivos que se plantearon en sus inicios, que no eran otros que el desarrollo de diversas modalidades deportivas y el cubrir las necesidades de diferentes entidades culturales, festivas o deportivas locales.

Para resolver las quejas planteadas por los vecinos en relación a los ruidos generados en el frontón, el Ayuntamiento ha encargado un estudio a una empresa de ingeniería acústica para conocer las intervenciones a realizar. ”



## Udaleko langileen egoera

Udal langileen egoera ezagutzeko eta aurrera begira eman beharreko pausuak finkatzeko, udalak EKAIN enpresari ikerketa bat egitea eskatu dio.

Bestetik, udal langileekin zegoen hitzarmen-kolektiboa 2010an bukatu zen; hori dela eta, hitzarmen berri bat adosteko helburuarekin Udala eta langileen ordezkarien artean mahai bat osatu da.

Con el fin de conocer y establecer los pasos a dar en relación a la situación laboral de los trabajadores del Ayuntamiento, se ha encargado un estudio a la empresa EKAIN.

Por otra parte, ante la finalización en 2010 del contrato colectivo con los trabajadores, se está negociando la firma de un nuevo acuerdo con los representantes de los mismos.



## ARTZABALGO LURJAUSIA DESPRENDIMIENTO EN ARTZABAL

Espero dugu oraingoan behin-betirako izatea.



## ITZIARKO MARKESINA

Itziarren markesina jarri dugu



## DEBAKO MERKATU TXIKIA

Merkatu Txikia indartzeko ekimen berriekin hasi gara.



**Zure kexak, ekarpenak... adierazi nahi badituzu, udaltzainetan izango duzu buzoia.**

Si deseas plantearnos cualquier sugerencia o comentario, rellena en este apartado lo que consideres oportuno y deposítalo en el **buzón** colocado junto a la puerta de la policía municipal.

---

---

---

---

---

---

---



**Alamedan, jolas berriak martxan.**  
**Próxima instalación de nuevos columpios**  
**en la alameda.**



# FILM

*emanaldia*

e k a i n a


## **“GAZTA ZATI BAT”**

DEBAN:

- Ekainak 15, 22:00etan.  
Kultur Elkartean. Euskaraz.
- Ekainak 22, 22:00etan.  
Kultur Elkartean.  
Gaztelerazko azpitituloekin.

ITZIAR

- Ekainak 22, 22:00etan.  
Itziarko Apaiz etxean.



## **“GARTXOT”**

DEBAN:

- Ekainak 29, 22:00etan.  
Kultur Elkartean. Euskaraz.

ITZIAR

- Ekainak 30, 22:00etan.  
Itziarko Apaiz etxean.



DEBAKO UDALA



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**